

Hondakinen amesgaiztoa

2006-2007 ikasturtean Tolosako umeek eta gazteek Hondakinen arazoak aztertu dituzte Escolako Agenda 21 programaren barnean eta, Udal Batzordean aurkeztu zituzten lanaren emaitzak eta hausnarketaren ondorioz adostutako konpromezuak eta proposamenak.

- Denera 3235 ikasle izan gara proiektu honetan parte hartu dugunak. Gazteak lan ezberdinak egiten aritu gara.
- Haur hezkuntzakoak hondakinak patioan eta parkean aztertu dituzte eta zein hondakin zein ontzira bota behar den ikasi.
- Lehen hezkuntzakoek beraien hamaketakoa aztertu, kaleko egoeraren diagnostia egin eta inkestak egin dituzte beraien etxeetan.
- Derrigorrezko bigarren hezkuntzakoek berriz, inkestak kalean egin dituzte.
- Helduek zabor poltsen azterketak egin eta beste urteetako galari jarraipena emanaz mugikortasunari buruzko tolosarren iritzia jasotzeko, inkestak egin dituzte kalean.

Hona hemen lan honi buruzko emaitzak:

Kale eta edukiontzi azterketaren emaitzak:

- Kale asko zikin aurkitu ditugu.
- Zakur kaka asko dago kalean.
- Edukiontziak kalea itsustu egiten dute.
- Arropa jasotzeko edukiontzi gehiago behar dira.
- Pila edukiontziak falta dira.
- Batzuek ez dakite, edo ez dute, zaborra bereizten.

Herritarrei erindako galdetegiaren emaitzak:

- Jendeak oraindik gauzak lurrera botatzeko ohitura du, eta aitoritu egiten du.
- Herritarren laurdenak, erabilitako olio komunetik edo arraskatik botatzen du.
- Tolosarren %15ak bakarrik daki gure honda kin guztiak Sasietara eramaten direla.
- Tolosarren erdiak edozein ordutan ateratzen du zaborra, eta %20k bakarrik dagokion ordutegia errespetatzen du.



5. Zaborra ateratzerakoan, ordutegia errespetatuko dugu.
6. Zaborontziak trukun mantenduko ditugu.
7. Ez dugu komunetatik, ezta haraskatik, zaborrik botako.
8. Paretak ez ditugu zikinduko; ikastetxean, parkeetan, kalean... dauden gauzak ondo erabiliko ditugu.
9. Jangelari dena jaten saiaturako gara.
10. Gelako materiala zaindiko dugu.

Papera-kartoa

- Udaltzeko zerbitzuaren kontsumoa murriztu.
- Herriko oharrak leku zehatzetan jarri.
- Paper birziklatua erabili.
- Dendetako kartoiak jasotzeko kaiolak edo antzekoak jarri.

Beira

- Botilak hautsi gabe bildu eta botila osoen berrerabilpenak izan ditzaketen arazo legalak berrikusi eta aldatu ahal den heinean.
- Ostalaritzan botilak jasotzen ez diren enpresei oharrak bidali jasotzeko.

Ontziak eta plastikoa

- Ontzi txikien sailkapena ere bultzatu.
- Komertzioetan plastikozko poltsak kobratzea eskatu.

Etzeko hondakin arriskuak

- Olioaren bilketaren inguruan kanpaina gehiago egin, jendearengan kontzientzia handitzeko eta bitarteko gehiago eta eroaogako jarri: auzoetara eraman adibidez.
- Garbitzaileek izan ditzaketen arriskuen inguruko informazio kanpaina egin.

Egurra

- EMAUS-ekoekin kontaktuan jarri altzariak berrerabiltzeko.
- Altzariak erabiliz aglomeratuen produkzioa bultzatu.
- Altzariak berrerabiltzeko errestaurazio tailerak bultzatu.

Oihalak

- Edukiontzi gehiago jarri.



ZABOR POLTSAREN AZTERKETAREN EMAITZAK	PISUA (g)	% PISUA	% Mankomunitateko batz bestekoak
Gai organikoa ustelkorrak	607,20	41,85	33,36
Papera-kartoiak	571,20	39,18	30,74
Beira	103,35	7,09	10,69
Ontzi arinak	74,50	5,11	14,56
Plastikoak ez diren ontziak	35,70	2,45	1,27
Burdin metalak ez diren ontziak	12,00	0,82	0,240
Etzeko hondakin arriskuak	48,70	3,32	0,12
Cekloa	5,30	0,36	1,43
GUZTIRA	1.457,95	100,00	100,005

Konpromezuak

1. Zakarrak ez ditugu botako lurrera (pipa azalak, txikileak...).
2. Gubxiago kontsumitzen eta behar ez duguna ez erosten saiaturako gara.
3. Gauzak berrerabiltzen saiaturako gara; adibidez: orrietan bi aldetatik idatzko dugu, botilak urez betetzeko berrerabiliko ditugu, altzariak zaindu bizi iraupen luzeago emanaz edota bigarren eskuko dendetara eramanez.
4. Etxean eta eskolan hondakinak sailkatzen ahaleginduko gara.

Proposamenak

Hondakin organikoak

- Konpostatzeko bitartekoak jarri eta herritarren artean informazioa zabaltu.
- Eusko Jauritzari biogasaren inguruko instalazioak jartzearen gaia aztertzeko eskatu eta informatu herritarrei.

Tolosako ikasleen partaidetza



Mugikortasunari buruzko inkestak kalean:

Tolosaren iritzia jasotzea zen helburua. Babilergoko ikasleek ikastaro biki bat egin ondoren kalean egin zituzten inkestak eta tratamendua Aztiker enpresak egin zuen. Eskolen arteko foroa, Udala eta Aztiker-ek hartu zuten parte langintza honetan.



Hondakinei buruzko diagnostikoa:

Ikastebetean eta herri mailan landa lana egin zuten ikastetxe guztiek eta maila guztietan: ibilaldiak, zabor poltsaren azterketak, berziklatzeko edukiontzi azterketa, Oria ibaiaren garbiketa...



Cicloplast erakundearen erakusketak:

Paper Eskolan egin zen. Bi helburu zehatz zituen erakusketak: informetzea eta formatzea. Batekik, material plastikoaren aldean 'ezezagun' denari buruz informatzea; eta bestetik, plastikoen balo-bizitza bukatzen denean, haiek birziklatzeko ingurumen-praktika egokienak jarraitzeko formatzea.



Irteerak:

- Laskoraingo LH 3. maila eta Samaniego 6. maila, Sasietako zabortegia bisitatu zuten bertan Legazpiko sailkapen plantarekin batera.
- Tolosako gazteboak Legorretako ur-zikinen araztegia ikustera joan ziren.
- Belartzan dagoen EMAUSeko 'Ekoenter' zentroa ezagutu zuten.
- Tolosako eskoletan ebeko hondakin arriskuak eta olio bilketaz arduratzen den Puntu Berdeari buruzko saioa izan zuten.

Ikasleen Foroa:

Hondakinen lanari buruzko diagnostikoaren emaitzak bateratzeko foroa. Partaideak: ikasle ordezkariak, irakasleak, gurasoak, Zuloaga Txiki eta Ceida.

Udal Batza:

Ikasturte honetako lana aurkezteko asmotan pleno bilera. Partaideak: ikasle ordezkariak, irakasleak, gurasoak, Zuloaga Txikiro arduradunak, Ceida, Aikatea, zinegotziak, teknikariak eta beste hainbat herritar Tolosako udaltzeko batzar aretoan bildu ziren.



Gabonak eta kontsumoa:

Birziklapen tailerra, hondakinen inguruko txibongiloen saioa, eta hondakin bakoitza zein ontzira bota behar den erakusteko saioak, Zuloaga Txiki Ingurugiro Eskolan. Haur Hezkuntzako ikasleek hartu zuten parte.


Hondakinei buruzko erakusketak:

"Zaborrak, amesgaiztorik ez!", herritarren kontzientziazioa pizteko helburuarekin egungo errealitateak isladatzen duen erakusketak. Tolosaldeko Mankomunitateak, Tolosako Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatutako erakusketak irekia Aranburu Jauregian.

Foro berezia Udalarerain:

Iazko lanaren jarraipena egiteko bilera bat. Partaideak: ikasle ordezkariak, irakasleak, gurasoak, Zuloaga Txiki, Ceida, Aikatea eta zinegotziak.





Tolosa zabor bilduma

Ez dago zalantzanik gaur egungo gizarte asko kontsumitzen dugula, eta horrek kezkatu behar gaitu. Hori dela eta, Tolosaldeko zaborra pilatzen den Beasaino Sasieta zabortegira hurbildu gara bertako lana ezagutzeko asmoz. Han Enrike Enparantza ingurugiro teknikariak hartu gaitu eta berarekin hitz egiteko aukera izan dugu. Zabortegia nolakoa den ere ikusi dugu eta, egia esan, konturatu garajendea ez dela ohartzen munduan dagoen hondakin kopuru larriaz. Etxetik ateratakoan kaleak garbi ikusten ditugunez, pentsatzen dugu planeta garbi dagoela, baina ez da hala. Zabortegira iritsi bezain laster, jabetu gara distira duen guztia ez dela urrea. Alegia, zabortegiak hondakinak jasotzen ditu, baina ez da irtenbiderik egokiena; arazoaren zati txiki bat besterik ez du konpontzen.

Enparantzak azaldu digunez "hondakin kopurua igo egin da. Gehiago kontsumitzen dugu; beraz, zabor gehiago sortzen dugu. Gero, zabor hori jada sortu dugunean, birziklatzeko aukera dugu, baina dagoeneko zaborra etxean daukagu. Horregatik, nahiz eta geroz eta gehiago birziklatu,

zabortegira zabor gehiago iristen da. Birziklatzearekin batera gure kontsumoa murriztu beharko genuke".

Euskaldunok ez gara horren desberdinak inguruko beste herrialdeetakoekin alderatuz gero. Europan gehienok antzekoak gara. Desberdintasuna gehienbat birziklapenean datza. Batzuek bestek baino gehiago birziklatzen dute. Honetaz ere hitz egin digu Enparantzak: "maila honetan gipuzkoarrak nahiko ondo gabilta nahiz eta oraindik maila onenera allegatzeko lan dezente dagoen. Sasieta sorturiko zaborraren laurdena baino pixka bat gehiago birziklatzen dugu."

Hau guztia azaldu ondoren, esan dezakegu irtenbide bat aurkitu behar dugula hondakinak guztiz desagerrarazteko. Adibidez, paperaren kontsumoa murrizteko, gaur egun tresna informatikoei asko laguntzen dute eta papera bi aldeetatik inprimatzea ere lagungarria izan daiteke. Bestetik, supermerkatuetan dauden produktu enbaltatuak gutxiago kontsumitzeak ingurugiroari lagunduko lioke. Azken finean, hondakin kopurua neurri batean murriztea gure eskuetan dago.



HONDAKINA	KOPURUA(tona)
Beira	1595
Papera	1878
Ontziak	530
Kartoiak	652
Pila	4
Aropa	149
Landareak	17
Hondakin arrisksutsuak	3,4
Kalean jasotakoak	53
elektronika	452
Erauzketa	573
GUZTIRA (zabortegira iritsitakoak)	19382
Birziklatuak	5961

Una de las conclusiones que más nos ha llamado la atención de las encuestas realizadas sobre los residuos, es que solo el 15% de los tolosarras sabe que estos se transportan al vertedero Sasieta de Beasain. Por ello hemos acudido a ese lugar para saber cual es el trabajo que allí se realiza. Nos hemos dado cuenta de que los vertederos no son la solución para los residuos, ya que mediante ellos solo solucionamos una pequeña parte del problema. Enrike Enparantza, técnico mediambiental, nos ha señalado que "pese a que cada vez se recicla más, se recibe una mayor cantidad de residuos en Sasieta. Nuestro nivel de consumo está aumentando, y con ello creamos más residuos. A la vez que reclamamos, deberíamos disminuir nuestro consumo". En Sasieta se recicla una cuarta parte de los residuos que allí se deposita.

Esta claro que tenemos que adoptar medidas para que los residuos desaparezcan por completo. Por ejemplo disminuyendo el consumo del papel utilizando aparatos informáticos o imprimiendo la hojas por las dos caras, reduciendo el consumo de productos embalados,.... Está en nuestras manos.

2006.urtean Sasieta mankomunitateak jasotako hondakin kopurua.

Zumardi Handia: erabilgarria

"Espazioak erabilgarriago bihurtzea da lortu nahi duguna"



lazo ikasturtean 'Kalea Bizi' programako gai nagusietako bat Zumardi Handia izan zen. Orduan agertu genuen eremu hori aisiarako berreskuratzea oso ona zela iruditzen zitzaigula. Gaiari jarraipena egiteko gogoz, bertako proiektua nola dagoen jakin nahi izan dugu, eta horretarako Ainara Sagarna Udal Arkitektoa elkarrizketatu dugu.

da lortu nahi dugun helburua. Aldi berean parkearen beste erabilgarritasun bat ematen da eta naturalagoa bihurtzeko asmoa dugu.

Nondik joango da ibilbidea?
Gubirgobera orain doan lekutik. Aldaketa nagusia Ibarra aldetik zertxobait alendu eta horma eta ibaiaren artean zona berde bat sartzeko aukera da, ibaiaren ibilbidea naturalagoa izan dadin, zuhaitzak, landareak... Tolosaldeko parkea ikusteko aukera izan nahi dugu.

Zenbat iraungo dute obrek?
Orain daukaguna aurre-proiektu bat da eta obren luzapena ezagutzeko proiektu bat egin behar da, hau da, detaile gehiagokoa.

Zer egoeratan daude momentu honetan obrek?
Hasi gabe. Izan ere proiektua ere detaile guztiekin erredaktatu gabe dago.

Zerikusirik izango al dute etxebizitzek Zumardi Handian egingo diren obrek?

Bai, azkenean ingurune osoa aldatuko da. Orain arte nahiko zona degradatua izan da eta etxebizitzak berrien inplantazioarekin paso errazagoa eta irekiagoa izango da alde honetatik irazango du eriazioa.

Zer aldaketa jasango ditu parkeak?
Zubi peatonal berria, erreka zuzenagoa, bide gorria, zuhaitzak mantendu, haur parkeak jarri, aparkalekua kendu...



Zergatik Zumardi Handiko obrak?
Ba... inguratzen gaituen espazioa gure beharretara egokitzeko, orokorrean hori esango genuke.

Zergatik aldatu behar duzue ibaiaren ibilbidea?
Azterketa bat egin da ibaiaren inguruan eta uzten dituen espazioak erabilgarriago bihurtzea

Eskolako Agenda 21

Tolosa 2006/07



Hondakinak

Aldizkari honetan, oso aipatua den gai batetaz hitz egingo dugu: hondakinak. Izan ere, Tolosako hainbat umek eta gaztek hondakinaren arazoak aztertu dituzte inkesta eta beste ekintza batzuen bidez. Huelduen partaidetza ere izan dugu. Hau guztia Eskola Agenda 21 programaren barnean dago. Inkesten eta egindako lanen emaitzak jaso ditugu eta aldizkariaren erdiko orrialdeetan publikatu.

Aurreko ikasturtean ere garatu genuen gai bati eutsi diogu: Zumardi Handiaren etorkizuna. Lanak egiten ari dira bertan errek ari bide berria egin eta parkea beste era batean antolatzeko. Udaletxeko Arkitektoak, Ainara Sagarna, kontatu digu proiektua nola dagoen.

En este curso, y dentro del programa Agenda Escolar 21, nuestras preocupaciones medioambientales se han centrado en el tratamiento de los residuos. A través de encuestas y muchas otras actividades los jóvenes de los centros escolares de Tolosa hemos llegado a unas conclusiones y hemos adoptado unos compromisos en torno a este tema. En su momento se las presentamos a los representantes municipales en un Pleno, y ahora las queremos dar a conocer en ésta publicación. Y además seguimos preocupándonos sobre el futuro del parque Zumardi Handi, como ya lo hicimos el curso anterior. Hemos entrevistado a Ainara Sagarna, Arquitecta Municipal, para saber en qué punto está el proyecto.



Diagnostikoa

Adin guztietako ikasleek ikasturtean zehar egindako ekintzak eta haietatik ateratako ondorioak eta diagnostikoaren puntu nagusiak.



Zabortegia

Tolosarrok sortzen ditugun hondakinak Beasainen dagoen Sasieta zabortegira eramaten dira. Bertara joan gara nola lan egiten duten kontatzeko.

